

2016an Errenteriako Lurgorri Kultur Elkarteak sortu genuenean, Angelita izan genuen lehenengo bidelagunetako bat.

Lurgorriren familiak berak jarri gintuen Angelitarekin harremanetan, izan ere, Loiditarrek eta Azkarragatarrek urteetako adiskidetasun harremana izan zuten. Azkarragatarrek ez zuten Errenteria bisitoki, baina maiz etortzen ziren Errenteriako aitonarengana eta bertan momentu ugari partekatzen zituzten. Angelitak, beraz, ederki ezagutzen zituen

ANGELITA LOIDI, *ERRENTERIAKO LURGORRI KULTUR ELKARTEAREN LAGUNA, JOAN ZITZAIGUN 2017AN*

Garbiñe Oyarbide

Angelita, argazkiaren erdian, Lurgorriren 100. urteurreneko erakusketan.



Azkarragatarrak, baita Lurgorri bera ere, eta berarengana jo genuen informazio eske. Bere etxeko atea zabaltu zizkigun, eskuzabaltasunez eta 100 urte betetzera zihoan emakume berezi hark zuen energia miresgarriarekin.

Angelitarekin pasatako orduak ez ziguten soilik Lurgorri gehiago ezagutzeko balio izan, garai hartako Erretereriako giroa ezagutzeko eta, batez ere, emakume harrigarri bat ezagutzeko balio izan ziguten baita ere. Angelitaren etxera sartuta txundituta geratu ginen egongelatik genuen ikuspegi harekin. Udaberriko egun eguzkitsu hartan, egongelako leiho handi hartatik Kontxako badiaren ikuspegi paregabea genuen. Ez zen ordea hura izan egun hartan gehien txunditu gintuena, Angelita bera are txundigarriagoa egin baitzitzigun hizketan hasi orduko. Sinestezina zirudien ia 100 urteko emakume hark zuen energia. Maiz esaten da adina izpirituan dagoela, ez betetzen ditugun urteetan, Angelita parametro horietan neurtuta, neskatoa zen, hori bai, esperientzia itzela gordetzen zuen neskatoa.

Bidaiari nekaezina izan zen Angelita bere bizitza osoan, 90 urtetik gora beteta ere, atzerriko leku urrunetara bidaiatzeko grina galdu ez zuena. Horren lekuko zituen zenbatezineko bidaiak horietako argazki eta bideoak. Egongelako mahai gainean zituen garai batean egindako argazkien diapositibak, hauek digitalizatzeko lanetan baitzebilan Angelita. Bere izpiritua gaztetasunaren beste adierazle bat hori ere, teknologia berriei ez zien beldurrik eta ederki moldatzen zen kontu horietan ere. Bistan zen Angelitaren ezagutzarako grina hura ez zutela urteek apaldu.

Angelita Loidi Erretererian sortu zen 1916ko abuztuaren 22an, Lurgorri jaio zen urte berean, bere anaia bikia Jose Antoniorekin batera. Jose Antonio anaia idazle ezagun bilakatu zen, euskarazko lehen polizia-aleberria berak idatzi baitzuen 1955ean

eta ohorezko euskaltzain ere izan zen, besteak beste. Angelitaren historia, baina, ezkutuagoa izan da, maiz emakumeoi gertatzen zaigun bezala. Gerra aurretik farmazia ikasketak hasi zituen, baina altxamendu militarren ondoren sortutako egoerak etenaldi bat eragin zuen bere ikasketetan eta 1939ra arte ezin izan zituen amaitu. 1941ean zabaltu zuen bere lehen farmazia Pasai Donibanen, gerra zibilaren gora beherak atzean utzi ondoren, eta gerostik, etenik gabe lanean aritu zen, 100 urterekin ere, egun bere alabak zuzentzen duen Donostiako farmaziara joaten zen egunero.

Altxamendu militarra ia Sevillan harrapatu zituen Angelita eta aita, izan ere, egun batzuk lehenago Madrilen farmazia ikasketen azterketak egitera joan zen aitarekin eta handik Sevillara joateko intentzioa zuten. Baina Madrilgo giroa ikusirik, nahiago izan zuten Euskal Herrira itzultzea eta, Orioko osaba apaizaren etxean harrapatu zuen, azkenik, gerraren hasierak. Ama Oriora joan zen tropak Agustinetaraino heldu zirenean, aita luzeago geratu zen Erretererian, Udalean zituen ardurengatik, bertako alkateordea baitzen. Florentino Loidi EAJko kidea eta Erretereriako Batzokia eraiki zuen Sociedad Oarsoko lehendakaria zen, politikoki konprometitua eta Angelita bera maiz joaten zen aitarekin mitinetara. Bere ikasketek ez zioten Batzokian ibiltzeko denbora askorik uzten Angelitari, baina noizean behin Emakume Abertzaleen Batzak antolatzen zituen jardueretan parte hartzen zuen. Erretereria ebakatu zenean elkartu zen aita familiarekin Orion eta bertan geratu ziren irailaren 13an tropak Donostian sartu ziren arte. Erretereria ia hutsik geratu zela esan genezake, herritarren ia hiru laurdunek alde egin behar izan baitzuten.

Orion hasi zen Loidi-Bizkarrondotarren odisea. Oriotik Aizarnara, Aizarnatik

Florentino Loidi EAJko kidea eta Erretereriako Batzokia eraiki zuen Sociedad Oarsoko lehendakaria zen, politikoki konprometitua eta Angelita bera maiz joaten zen aitarekin mitinetara.

Bidaiari nekaezina izan zen Angelita bere bizitza osoan, 90 urtetik gora beteta ere, atzerriko leku urrunetara bidaiatzeko grina galdu ez zuena.



Angelita Loidi Errenteriako Emakume
Abertzaleen Batzan.

Ispastertera, Ispasterretik Bilbora eta handik Turtziozera. Turtziozen banatu zen familiaren ibilbidea, aita gerra amaitzera zihoala handik Frantziara joan zen, ardura politikoak zeuzkaten beste hainbat gizonekin eta erbestean bizi izan zen 1941. urtean itzuli ahal izan zuen arte. Ama, anaia eta Angelita, berriz, gerra amaitutakoan Oriora itzuli ziren eta bertan bizi izan ziren 3 urtez, lehengusu batzuek utzitako etxe batean.

Memoria miresgarriz kontatu zizkigun odisea haren nondik norakoak Angelitak, ia 80 urte beranduago. Konfiskatutako ondasunak, lagunen galera, bonbardaketak... beren ibilbidean errenteriar ugarirekin egin zuten topo, familiaren lagun mina zen Gervasio Albisu, adibidez, Aizarnan topatu zuten. Aizarnan esan zien Gervasiok Errenteriar itzultzeko asmoa zuela eta gero jakin zuten bertan atxilotua eta fusilatua izan zela. Momentu horretan argi izan zuen Florentino, aitak, Errenteriar itzuli ezkeru amaiera berdina izango lukeela. Ispasterko etxean errenteriar ugari izan ziren beraiekin, batez ere, Itxarkundia batailoian zebiltzan gudariak, noizean behin atsedean hartzera joaten zirenak, tartean

Koldo Mitxelena, edota Olaizola eta Arozena anaiak. Ispasterko etxetik ikusi zituen, hain zuzen ere, Angelitak, Gernika bonbardatu zuten hegazkinak. Aita Bilbotik Ispastererako bidean Gernikan bertan harrapatu zuen bonbardaketak, zorionez, babesteko lekua bilatu zuen. Tropa frankistak Lekeition sartu zirenean, Bilborako bidean jarri ziren, aita, ama eta Jose Antonio kotxez eta Angelita oinez beraiekin etxean zeuden gudariekin. Aitak Bilbotik bueltan Busturian jaso zituen oinez zihoazenak eta gudariak Bermeon geratu ziren berriz ere frontera joateko.

Bilbon Jesus Mari Leizaolaren anaia Ricardok eman zien bizitoki. Jesus Mari Leizaolaren emaztea, izan ere, Loiditarrazen eta haren laguntza izan zuten. Etxehartatik ere makina bat errenteriar igaro zen, Bilbon errenteriar ugari zeuden eta Errenteriako Udalak bere funtzioak betetzen jarraitu zuen bertan. Ordurako, Florentino bera Errenteriako alkate izendatua izan zen, aurrekoa bere kargutik baztertua izan ondoren. Angelitak gogoan zuen bizi ziren lekutik 7 kaleetarako bidea nola egiten zuten. Gran Via inguruan lasai joaten zen, hormigoizko etxek bazuten non babestua bonbardaketetatik, baina

Arenalean eta 7 kaleetan azkar azkar ibiltzen zen, beldurrak airean hartuta.

Bilbo erortzera zihoala, Turtziozera joan behar izan zuten. Hura izango zen gerrako azken geralekua Loiditarrentzat. Hara ere errenteriar ugari joan zitzaizkien, tartean Joxe Mari Azkarraga "Lurgorri". Joxe Mari Turtziozen egin zuten komandante eta Angelitak zioenez, berak josi zizkion 8 puntako izarrak bai txapelean eta baita sorbaldetan ere. Gertaera hura kontatu zigunean, galdera bat bota zuen Angelitak airera, izar haiek josi ez banizkio, ez ote zuen bizirik irauteko aukera gehiago izango? Bistan zen galdera hori maiz egin ziola Angelitak bere buruari eta ia 80 urte beranduago pisu hori oraindik ere bere barruan zeramala.

Gerra amaituta, esan bezala, Orion izan zuten bizitoki 3 urtez, Angelitak, haren amak eta anaia bikiak. Gerra aurretik zituzten ondasunak galduta, aita erbestean, anaia gaixorik eta ama bere maistra postutik baztertuta, Angelitak eraman zuen bitarte horretan ogia etxera. Billabonako botikan botikari laguntzaile gisa aritu zen lanean, 1939an ikasketak bukatzeko aukera izan zuen arte. Aita erbestean zegoen bitartean, Angelitak egiten zituen baita familiaren bi aldeen arteko korreo lanak eta abentura ugari kontatu zizkigun baita horren inguruan ere.

Garai latzetan zaildutako emakumea zen Angelita, baina bizia eta oso aldarte onekoa. Garai zail haiek atzera utzita, izan ere, bizimodu polita egiteko aukera izan zuen. Ezkondu eta familia ederra hazi zuen, oso harro sentitzen zen bere familiaz. Bere jakin nahia asez bidaiatzeko aukera izan zuen, bere esperientzia besteekin partekatzekoa. Guk oso labur ezagutu genuen, baina esan dezakegu bere etxeko ateak ireki zizkigun bezala bere bihotzekoak ere ireki zizkigula eta gugan utzi duen oroimena ez da nola hala ezabatuko. Gure ohorezko gonbidatu izan zen Lurgorriren jaiotzaren 100. urteurrena ospatu genuenean eta bere oroimenak beti izango du lekutxo bat Errenteriako Lurgorri Kultur Elkarrekin antolatutako ekimenetan.

Eskerrik asko, Angelita, zure eskuzabaltasunarengatik. Errenteriako Lurgorri Kultur Elkarrekin bidelagun izango duzu zauden tokian zaudela.